

Hugoenea **Baldintzak**

- ✍ Idazle edo sortzaileek gehienez ere hamabost egunez erabil dezakete etxea. Hala ere, behar bezala justifikatuz gero, epe hori luzatu daiteke.
- ✍ Idazleek, sortzaile gisa, literaturaren edozein genero lantzeko gai behar dute izan (saiakera, antzerkia, ipuina, poesia, nobela, haur eta gazte literatura, gidoigintza, itzulpengintza, ikerketa edota kazetaritza).
- ✍ Idazleek *Hugoenea* etxean burutzen duten lanean espresuki aipatuko dute bertan idatzitakoa dela.
- ✍ Idazleek udaleko kultur programazioan era batera edo bestera parte hartzeko konpromisoa hartuko dute, udalak hala eskatuz gero; hitzaldia edo bestelako laguntzaren bat emanez; baldin eta hitz egiten dituzten hizkuntzek horretarako aukera ematen badute.
- ✍ Idazleek *Hugoenean* egindako lanaren berri emango diete komunikabideei.
- ✍ Idazlearen Elkarteak *Hugoeneako* egonaldian burututako lanen bi ale bidaliko dizkio udalari, *Hugoenean* eta liburutegian edukitzeko.
- ✍ Idazlearen Etxea erabili nahi duten sortzaileek, EIEri edo Pasaia Udalari zuzenduko dizkiote eskaerak. Eskaerekin batera, landu nahi duten proiektuaren azalpena eta lagin bat igorriko dituzte.
- ✍ *Hugoeneak* hizkuntza gutxituetako idazleak hartuko dituzenez, hizkuntza horietan idatzitako laginak bidaliko dituzte idazleek. Inguruko hizkuntza gutxituetan idatzitakoak euskaldunontzat aski ulergarriak direnez, ez da horien itzulpenik beharko.
- ✍ Hizkuntza gutxitua euskaldunontzat arrotzegia bada, bretoiera edo frisiera kasu, proiektuarekin batera bidaltzen dituzten laginak frantsesez, ingelesez, gazteleraz edo euskaraz egongo dira.
- ✍ Editorial batekin aurrekontratua izatea kontuan hartuko da, baina ez da ezinbestekoa izango.
- ✍ Etxean sartzean eta etxetik irtetean etxea zein egoeratan dagoen aztertuko da (*Etxearen Egoera* protokoloa), idazlea bertan dela.